

Udal arteko topaketa teknikoa

Donostia, 2023ko ekainaren 8a



Helduak Zabaltzen

Topaketa hau Helduak Zabaltzen proiektuaren esparruan egin da, Euskadiko Adinekoen Gizarte Zentroyen ereduak erabat eraldatzeko eta digitalizatzeko ekimena.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

BERDINTASUN, JUSTIZIA
ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA
DEPARTAMENTO DE IGUALDAD,
JUSTICIA Y POLÍTICAS SOCIALES



EUSKOFEDERPEN

Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko Jubilatuen Lurralde Elkartea
Federación Territorial de Asociaciones Provinciales
de Pensionistas y Jubilados de Álava, Guipúzcoa y Vizcaya

matia
instituto

Aurkibidea

1 Aurrekariak

2 Parte hartzaileak

3 Helburuak

4 Programa eta metodologiak

5 Emaitzen laburpena

18 Hurrengo urratsak

20 Ondorioak

Aurrekariak



Helduak Zabaltzen Eusko Jaurlaritzak eta Euskofederpenek bultzatutako proiektua bat da, eta Matia Institutuaren laguntza jasotzen du Adinekoen Gizarte Zentroyen ereduaren eraldaketa integrala errazteko, baita Woko-rena ere, zentroyen digitalizazioan laguntzeko.

Zentroyek **adinekoen ongizatean betetzen duten funtsezko zeregina kontuan hartuta** eta adinekoen errealitate berrien, haien aniztasunaren, udalerrietako baliabide sozial, kultural eta zibiko berrien, digitalizazioaren eta zentroyei lotutako aurreiritzi sozialen ondorioz zentroyek azken urteetan izan duten ahultzearen aurrean, zentroyen egoera aztertu beharra dago, **egoera hobeto ulertzeko eta zentroyen ereduaren eraldaketa lortzera bideratutako lan ildoak zehazteko**.

Helburu horiek guztiak lortzeko, Helduak Zabaltzen-en tokiko eragina eta eragin globala bilatzen ari gara, **bi hurbilketan** (hiri hurbilketan eta landa hurbilketan) oinarritutako lan plan baten bidez. Nolanahi ere, prozesuak antzekoak dira lurralde historiko guztietan. Adierazitako **bi hurbilketa horietan, bi esperientzia pilotutan lagundu da** kasu bakoitzean, eta esperientzia eta ikaskuntza horiek Euskadiko gainerako udalerrietara hurbildu dituzten **parte hartzeko espazioak** sortu dira.

Parte hartzeko espaziorik esanguratsuenetako bat udalarteko topaketa teknikoa da. Jardunaldia 2022. urtean hasi zen, udalarteko sare tekniko bat sortzeko helburuarekin. Topaketa hori Euskadiko Adinekoen Gizarte Zentroyen (AGZ) esperientziak ezagutzera eta elkarrekin haien errealitateei, paradigmari eta etorkizunari buruzko gogoeta egitera bideratu zen. Bigarren topaketa 2023ko ekainaren 8an egin zen, eta zehaztutako ildoekin jarraitu bazen ere, zentroyen eguneroko bizitza hobetzeko eta **zentroyak eraldatzeko estrategia eta tresna praktikoak sortu eta partekatzeari eman zitzaion lehentasuna**.

Parte hartzaileak



Euskadiko 15 herritako 22 pertsonak hartu zuten parte topaketan. Herri horietatik, 12 Gipuzkoakoak dira (Azkoitia, Donostia, Eibar, Errenteria, Hernani, Idiazabal, Legazpi, Lezo, Irun, Irura, Ordizia eta Usurbil), 2 Bizkaikoak (Barakaldo eta Durangaldea) eta bat Arabakoa (Gasteiz).

Gainera, Convive zentroetako (Caja Navarra Fundazioa), BBK Sasoiko zentroko (BBK Fundazioa) eta Bizan zentroetako (Gasteizko Udala) hiru ordezkariaren parte hartze berezia izan genuen.

Topaketa AGZen kudeaketari lotutako udal teknikariei zuzenduta zegoen nagusiki, baina arlo horretako arduradun publikoentzat ere irekita zegoen, betiere gutxienez teknikari bat ere joaten bazen. Parte hartzaile gehienen profil profesionala gizarte zerbitzuetako teknikariarena edo arduradunarena izan zen, hots, gizarte langilea edo adinekoen teknikaria (figura hori dagoen herrietan).

Hona hemen jardunaldian parte hartu zuten beste profil batzuk: berdintasun teknikaria, dinamizatzaile komunitarioa eta gizarte zerbitzuetako zuzendari arduradunak. Halaber, Gizarte Ekintzako zinegotzi batek parte hartu zuen.

Udalen eta AGZen arteko harremanean sortutako rolen aniztasun hori Euskadin erakundeen eta AGZen arteko harremanen esparruan dauden errealitate ugarien isla baino ez da.

Helburuak

1. Adinekoen Gizarte Zentroen kudeaketari dagokionez administrazioaren barruan zeregin desberdinak betetzen dituzten teknikariek elkar ezagutzea erraztea, eta zentroen beste ikuspegi eta eredu batzuk ezagutzea, landa- eta hiri-inguruneen arteko aldeak eta lurralde historiko bakoitzeko kasuistika kontuan hartuta.

2. Teknikarien artean sarea ehuntzea, haien artean harremanetan jarraitzeko aukera erraztuz.

3. Egunerokotasuna hobetzeko eta zentroak eraldatzeko estrategia eta tresna praktikoak sortzea eta partekatzea.

4. Zentroen eraldaketa-prozesuak eta eredu berritzaileak ezagutzea.

5. Adinekoen Gizarte Zentroi lotutako udal arteko teknikarien sareari laguntzeko hurrengo ekintzak definitzea.

6. Parte-hartzaileek identifikatutako erronkei eta proposamenei buruzko informazioa biltzea, zentroen ezagutzan sakontzen jarraitzeko.

7. Euskadiko zentro-eredu berriak orokortzen eta beraien eskalagarritasunean laguntzea, funtsezko eragileak prestatuz.

Programa eta metodologiak

10:00 - 10:15 Harrera: Udalerrien arteko harrera eta aurkezpenerako espazioa.

10:15 - 10:30 Eusko Jaurlaritzaren ongietorri instituzionala.

10:30-11:00 Ondorioak gogora ekarriz: Udalarteko lehen topaketa teknikoan zehaztutako lan ildoak berriz heltzeko murgiltze espazioa


11:00-12:00 Esperientzia inspiratzaileak: AGZen ereduak aldatzeko esperientziak zuzenean ezagutzeko eta haiekin elkarrengaitzeko dinamika, parte hartzean oinarritua: **Bizan** (Gasteizko Udala), **Convive zentroak** (Caja Navarra Fundazioa) eta **BBK Sasoiko zentroa** (BBK).

12:00-12:30 Kafe solasaldia: Jardunaldiaren atsedenak; proiektuak zein AGZ batzuk sakonean ezagutzeko aukera izango da

12:30-13:30 Udalerriera eramatea: Lan egiteko moduak, tresnak eta ikaskuntzak partekatzeko eta udalerrira bakoitzaren errealitateetara eramateko talde espazioa.


13:30-13:50 Hurrengo urratsak: Helduak Zabaltzen ekimenak AGZetako profesionalentzat landu beharreko etorkizuneko lan ildoak taldean zehaztea.

13:50 - 14:00 Jardunaldiaren amaiera: Ondorio orokorrak, eskertzak eta agurra.



Emaitzen laburpena

Esperientzia inspiratzaileak



1. Sasoiko

2. Centros Convive

3. Bizan



Emaitzen laburpena

1. BBK Sasoiko Fundazioa

E«Adinekoen klubak» ereduak 1965. urtean hasi zen aisia beharrak bultzatuta, eta lurraldeko hainbat lekutan sortu ziren zentroak. 2018. urtean, paradigma aldaketa baten hasiera hauteman zen, zahartzen ari diren belaunaldi berrien ideiek bultzatuta. Horretarako, «**adinekoen klubak**» **aldatzeko talde sustatzaile bat** sortu zen. Erretiratuen 4.0 kluba bilatzen zuten. Horrela sortu zen BBK Sasoiko ereduak, **zahartzen ari diren pertsonen sustapen berritzaileko espazio bat** sortu zuena.

Zahartze aktiboa proiektuaren funtsezko elementutzat hartzen da, eta **parte hartze sozial eta komunitarioan** ahalegintzen ari dira. BBK Sasoiko zentrorak joaten den adinekoak konpromisoa har dezan eta gizarteak adinekoen parte hartze soziala garrantzitsua dela ikus dezan lortu nahi dute.

Eredua inspiratzailea eta berritzailea da, eta **hainbat jarduketa ildo** ditu. «Joan, egin eta alde egiten dut» moduko tailerrak egiten dituzte (abizenen jatorriari buruzkoa, adibidez), eskari mota hori badagoelako, baina **prestakuntza alderdi bat duten proiektuak** bultzatzen dituzte, adinekoek berek proiektuak autonomiaz garatu ditzaten.

Halaber, **belaunaldiartekotasuna** dute ardatz, eta hainbat udal eragilerekin biltzen ari dira sare bat sortzeko eta beste leku batzuetako esperientziak ezagutzeko (baita nazioartekoak ere). Horren helburua da belaunaldi arteko ekintzak ez ezik, ibilbide eta sakontasun handiagoko proiektuak ere antolatuko dituen talde bat sortzea.

Eredu aldaketarekin, pertsonen profila zabaldu egin da, eta 55-80 urteko pertsonak daude.

Emaitzen laburpena

1. BBK Sasoiko Fundazioa

ZENTROETAN PARTE HARTZEKO EGITURAK:

Parte hartzeko lehen aukera lehen Talde Eragilearen bidez eskaini da. Aldi berean, edonork proposatu ditzake ideiak jarduera tailer gisa garatzeko eta/edo proiektuak sortzeko. Gainera, programetan eta jardueretan konpromisorik hartu behar izan gabe parte hartzeko aukera ematen zaie pertsoneri.



Emaitzen laburpena

2. Convive zentroak - Caja Navarra Fundazioa

Hasieran, ibilbide luzea egina zuten 11 «erretiratuaren klub» zeuden, eta aisiara bideratuta zeuden nagusiki. Urteekin, parte hartzaileen kopuruak behera egin zuen, eta profil nagusia adinik handieneko pertsona zen. «Klub» bakoitza adinekoen elkarte baten bitartez kudeatzen zen nagusiki, eta Caja Navarra Fundazioak diruz laguntzen zion bere jarduerak egin zitzaizkien. Gainera, **koordinazio enpresa bat zegoen, bi figura bereizirekin: koordinazioko profesionalak** (komuna «klub» guztientzat) eta **kafetegiko langileak** (zentro bakoitzari zegozkionak).

2018. urtean, Caja Navarra Fundazioak eredu aldatzeko beharra hauteman zuen, parte hartze txikiaren, profilen homogeneizazioaren, hainbat «klub» itxi izanaren eta zentroko bizitzari lotutako proiekturik ezaren ondorioz. Hori dela eta, 2019. urtean, kanpoko erakunde baten babesarekin, adinekoek Convive izeneko eredu berriaren definizioan parte hartzeko aukeran oinarritutako eraldaketa prozesu bati hasiera eman zitzaion. Prozesua proiektu pilotu batekin hasi zen zentro batzuetan, espazio berri baterako lekualdaketa baliaituta, eta eredu gainerako 8 zentroetan ezartzen jarraitu zen zentroen arteko esperientzia pilotu baten bidez. Eredua zentro guztietan ezartzen ari da 2021. urteaz geroztik.

Eredu berriaren aldaketa nagusia **parte hartzeko egitura berri bat** sortzean datza. Egitura horrek erabakiak hartzeko prozesuan erantzukizun maila desberdinekin parte hartzeko aukera ematen die pertsona guztiei, elkarteko batzordean parte hartu behar izan gabe. Aldaketa hori errazteko, **zentro bakoitzaren rol profesionala eraldatu zen**. Ildo horretan, kafetegiko rolak atzean utzi ziren, eta **ahaleginak eredu berriaren ezarpena eta parte hartze aktiboa erraztera** bideratu ziren. Kasu gehienetan, horrek ez zuen profesionalen aldaketarik ekarri zentroan. Aitzitik, funtzio berrietan trebatzen laguntzen ari zaie, eta langile berriak sartu dira taldean (gizarte integratzaileak, ezagutza komunitario handiko pertsonak eta abar).

Emaitzen laburpena

2. Convive zentroak - Caja Navarra Fundazioa

Azken aldaketa horren ondorioz, **jangelarik ez zuten kafetegiak itxi egin ziren**, eta prozesu gatazkatsua izan zen hasieran. Hori izan zen Caja Navarra Fundazioak bakarrik finkatu zuen erabaki bakarra, dinamizazio rola ekonomikoki bultzatzea kafetegi rola bultzatzea baino onuragarriagoa zela pentsatu baitzen.

Aldaketa horrek izen aldaketa ekarri zuen, eta Convive izena eman zitzaizen zentroi. Zentro horiek sareko lanera bideratuta, komunitatera irekita eta belaunaldi arteko harremanak sustatzera bideratuta zeuden, eta jarduera esanguratsuak eta adinkeraren aurkako borroka sustatzen zituzten. Eta, hori guztia, protagonisten parte hartze plural eta aktiboaren bidez.

ZENTROETAN PARTE HARTZEKO EGITURAK:

Alde batetik, adinekoen elkarteek jarraitu egiten dute zentroetan, batzordeen konpromiso eta parte hartze handiarekin. Eta, bestetik, figura berriak sortu dira, hala nola lan batzordeak (beraiek jarritako helburu batera bideratutako lantaldeak), boluntarioak (taileristak, elkarrekiko laguntza, batzorderako laguntza eta abar) eta talde eragilea (ereduak aurrera egiteko eta zentroa hobetzeko borondatez diharduten pertsonak). Halaber, pertsonak jardueretan eta baliabideetan parte har dezakete, konpromisorik hartu behar izan gabe.



Emaitzen laburpena

3. Bizan - Gasteizko Udala

IGainerako esperientzietan deskribatutakoen antzeko kezken ondorioz, Gasteizko Udala bere zentroekin zer egin zitekeen pentsatzen hasi zen 2006. urtean: zer jarduera mota eskaini behar zituzten, nola apurtu zitekeen espazioen maskulinizazioa, harreman gatazkak, bizikidetza eta abar. 2008. urtean, **parte hartzean oinarritutako prozesu plural bat hasi zen parte ziren pertsona guztiekin eta haien ekosistemarekin**, eta prozesu horretan hartu ziren erabaki nagusiak. Prozesu horren ondorioz, egungo Adinekoen Zentro Soziokulturalen ereduak sortu zen, eta azken urteetan Bizan Sarea izena eman zaio.

Gaur egun, **sarean kudeatzen dira parte hartzean oinarrituta, kudeaketa adinekoen ezein elkarteren bitartekaritzarik gabe egiten da, eta harrera zerbitzu bat jarri da abian zentroetan**. Horretarako, hainbat helburu dituzten lan batzordeak dituzte, eta edonork parte har dezake haietan. Horrela, beraz, zeregin aktiboa bete dezakete kudeaketan, erabakiak hartzean eta ekintzak egitean. Aldi berean, harrera prozesua zentro bakoitzeko erreferentziazko profesionalak bideratzen du.

Hamarkada bateko ibilbidearen ondoren, gaur egun lan batzordeetan parte hartzen duten pertsona gehienak 61-74 urteko emakumeak dira. Profil hori emaitza nabarmenetako bat da.

2019. urtean egindako ebaluazio batean, arautegia aldatzeko beharra ikusi zen, baita **irudia aldatzeko beharra** ere. Horren ondorioz, besteak beste, izena aldatu zen, adinkeraren inpaktua murrizteko. Halaber, irekitasuna eta belaunaldiartekotasuna bultzatzeko bidean aurrera egin beharra zegoela ikusi zen, eta **kulturartekotasuna eta parte hartzeko hainbat modutara irekitzeko aukera landu ziren** (lankidetzak, boluntarioak, «Piztu zure auzoa» eta abar). Horren guztiaren ondorioz, ildo horiek lantzeko hainbat programa eta proiektu sortu dira.

Emaitzen laburpena


3. Bizan - Gasteizko Udala

Azkenik, ibilbide osoan aurrera egiteko hainbat gako esanguratsu identifikatu dira. Haien artean, dagoeneko parte hartzen duten pertsonak eta haien ezagutzak abiapuntutzat hartzeak **eta parte hartzea pixkanaka eta gehituz bultzatzeak duten garrantzia izan da aipagarrienetako bat.**

Aipatutako beste arrakasta gako batzuk honako hauek izan dira: **pertsonen borondatezko lana**, eta aldaketa alderdi guztien konpromisoari esker sendotasuna ematen duen **apustu bateratu, egonkor eta ahobatezko gisa** egitea. Ildo horretan, funtsezkoa da taldeak pertsonekin zuzeneko harremana izatea, haien ahalmenak identifikatzea eta egiten dituzten ekarpenen balioa aitortzea. Azken batean, **ereduaren zutabea parte hartzea da**, pribilegioak jasotzen dituzten egiturak apurtzen dituen, eta parte hartzea bera da saria.

ZENTROETAN PARTE HARTZEKO EGITURAK:

Parte hartzeko formula nagusiak lan batzordeak, gai zehatzetarako lantaldeak, laguntza jakin batzuetarako boluntariorza ildo berriak eta zentroen edozein jarduera, harreman eta zerbitzutan parte hartzeko aukera dira.



Eraldaketa prozesuan sartuta daudenentzako gomendioak

- Gakoa da **ikuspegia irekitzea**. Izan ere, ez da eredu berari jarraikiz funtzio batzuk eguneratzera mugatu behar. Aitzitik, benetako eraldaketa batekin berritzera ausartu beharra dago. Azken batean, **ez da moldeak apurtzeko beldurrik eduki behar**.
- **Protagonistei erabakiak hartzen parte hartzeko aukera ematea. Pertsonen beharrei eta interesei lotutako eraldaketa bat egiteko, parte hartzean oinarritutako prozesu pluralak behar dira.**
- **Zentroen artean** jardunbide egokiak **partekatzea** eta beste baliabide batzuekin sareak sortzea, haien esperientzietatik eta ikaskuntzetatik ikasteko.
- **Adinekoentzat esanguratsuak diren pertsonak sartzea**, aldaketa errazagoa izan dadin.
- Gatazkan bakarrik ez egotea. Ildo horretan, ezinbestekoa da lidergoa bakarrik ez gauzatzea, **profesionalen talde** batekin baizik.
- Erabakien arrazoa egituratzea eta **lantalde on bat izatea**.
- **Adimen indibidualaren** ordez adimen kolektiboa bultzatzea.
- **Komunitatea irekitzeko** lan egitea, aldaketan aurrera egiteko eta beste **eragile batzuk eta profil berriak sustatzeko**.
- Convive zentroen eta BBK Sasoiko zentroaren kasuan, bi esperientzietan **kanpoko eragile batek lagundu zuen aldaketan**, eta eraldaketa prozesua zuzen eta berrikuntzekin egiteko gakoetako bat izan zen.
- Zentroekin harreman hurbila edukitzea eta «**lekuan bertan diharduten teknikariak**» izatea, prozesuetan beste profesional batzuek laguntzen dutela ere. Hori lortzeko gakoetako bat **bileren eta komunikazioen arintasuna** da.
- **Aurrerapenaren jarraipena** egitea, emaitzak jasotzea argudioak indartzeko, erresistentziak lantzea eta beharrezkoak diren alderdiak egokitzea.

Emaitzen laburpena

Udalerrira eramatea

Topaketaren atal honetan, parte hartzaileek esperientzia inspiratzaileetan partekatuari buruzko gogoeta egiteko aukera izan zuten taldeka. Zehazki, gogoeta eragin zuten galderak honako hauek izan ziren: Zer eramango zenuke zure udalerrira esperientzia inspiratzaileetatik? Nola eramango zenuke zure udalerrira? Zer beharko zenuke horretarako?

Ondoren, taldeen ondorio nagusiak aipatuko ditugu:

Zer eramango zenuke zure udalerrira esperientzia inspiratzaileetatik?

Zer beharko zenuke horretarako?

Nola eramango zenuke zure udalerrira?



Emaitzen laburpena

Zer eramango zenuke zure udalerrira esperientzia inspiratzaileetatik?

- **Talde lana eta parte hartzeko egiturak**

Beren udalerrietan berrikuntza prozesu bat sortzeko eta horretarako **parte hartze erreal eta zintzoan** oinarritutako formulak erabiltzeko beharra aipatu da, hau da, **aniztasunetik** abiatuta lan egiteko, alderdi guztiak kontuan hartzeko (figura teknikoak eta politikoak, adinekoak eta abar) eta entzutea eta itzultzea errazteko beharra.

Adierazi dutenez, prozesu horrekin batera **irekitasun** bat behar da, alde batetik ahots guztiak entzuteko eta aniztasuna jasotzeko, eta bestetik esperientziak eta ikaskuntzak partekatzeke, udalerrri beraren barruan edo beste udalerrri batzuekin.

Parte hartze horrek horizontala izan behar du eta, horretarako, beste egitura batzuk sortu behar dira, hala nola **lan batzordeak** eta **boluntarioak**. Parte hartzeko modu horiek oso erakargarriak direla aipatu dute, eta, ikusi dutenez, pertsona gehiago erakartzeko, kudeaketarako autonomia sustatzeko eta erabakiak errazteko formulak dira.

- **Belaunaldiartekotasuna eta beste kolektibo batzuekin partekatzea**

Belaunaldi arteko jarduerak eta/edo beste kolektibo batzuekin partekatutakoak batera lan egiteko modu gisa planteatu dituzte. Lan egiteko modu horrek adinekoen inguruko ikuspegi positiboagoa eta estigmatizazio txikiagokoa sustatzen du.

Gainera, horrek **erabilera anitzeko espazioak** sortuko lituzke, eta udalerriko baliabideei etekina ateratzeko estrategia gisa baloratzen da hori.

- **Figura eta rol berriak**

Beren udalerrietara eraman dituzten ikaskuntzetako bat aldaketan parte hartuko duten **figura teknikoen** planteamendu berria da. Aipatu dutenez, udalari oso lotuta dagoen rol batetik **prozesuetan laguntzen duen** (inposatu ordeztzat garatzen den orotan laguntzen duen) profil teknikotzat hartuko den rol batera igaro nahi dute.

- **Kafetegiaren planteamendu berria egitea**

Esperientzia inspiratzaileek kafetegiei eta haien kudeaketari buruz eragindako gogoetak eztabaida sortu du taldeen barruan. Zehazki, kudeatzeko modua udalerrri eta egoera bakoitzaren arabera planteatzea komeni dela adierazi da.

Emaitzen laburpena

Nola eramango zenuke zure udalerrira?

- **Diagnostikoa**

Lehen urrats gisa, udalerrien diagnostiko bat egitea planteatu da, zer duten, nora iristen diren eta nora iritsi nahi duten behar bezala baloratzeko. Horretarako, lehentasunak ezartzen eta erabakiak hartzen lagunduko duen azterketa sakon bat egin behar da.

- **Talde eragileak eta baterako sorkuntza**

Horretarako, inplikaturako profil guztiak bilduko dituzten talde eragileak sortzea izango da prozesua hasteko formula. Era horretan, **eraldaketarako** bidea erraztuko duen **diskurtso eta helburu komun** bat sortuko da eta parte hartzea parte hartu ohi ez duten pertsonen taldera irekiko da. Hain zuzen ere, hori izango litzateke **baterako sorkuntzarako** oinarria.

- **Presentzia eta laguntza handiagoa**

Parte hartu dutenen ustez, prozesu horretarako ezinbestekoa da zentroekiko harremana areagotzea, bai maiztasunari, bai kalitateari dagokionez. Hau da, presentzia handiagoa behar da zentroetan, elkarrekiko ezagutzan oinarritutako **lotura handiagoa** sortzeko. Presentzia horrek talde laguntza eta talde lana ekarri behar du, hau da, norabide biko harreman bat, orain arte baino neurri handiagoan.

- **Espazio naturalak eta informalak**

Garapen horretarako adierazitako gakoetako bat **espazio natural eta informaletara** hurbiltzea da. Hau da, parte hartzeko espazio errealak bilatzea, inposatutakoak eta artifizialak baztertuta. Hurbilketa hori orain arte bigarren edo hirugarren maila batean parte hartu duten pertsonengana iristeko jarraibide bat izan daitekeela pentsatzen da.

- **Ekipamenduak**

Lan ildo bat AGZe zuzendutako ekipamendu publikoak eta haietan egin daitezkeen hobekuntzak, aldaketak, bat-egiteak, berregokitzeak eta abar berriz planteatzera bideratuko litzateke. Aipatu dutenez, espazioak duen garrantzia dela eta, horri buruzko gogoeta propioa eta espezializatu egin behar da espazioa osatzen duten eragile guztiekin, hots, elkarrekin, administrazio publikoekin eta profil politikoekin.

Emaitzen laburpena

Nola eramango zenuke zure udalerrira?

- **Profil teknikoaren profesionalizazioa**

Figura profesionalak profesionalizatzeko beharra adierazi da («adinekoen teknikariak» izatea, adibidez). Figura horrek izan behar dituen gaitasun profesional batzuk azpimarratu dira: entzute aktiborako gaitasuna, dinamizatzailer komunitarioa, begirada «goxoa» eta ezagutza soziosanitarioak (bakardadea, Alzheimer-en gaixotasunaren hasiera eta abar detektatzen eta horretan laguntzen jakitea).

- **Zabalkundea eta komunikazioa**

Udalerrri batzuetan eta, neurri batean, estigmatizazioaren ondorioz gizarte zentroek jasaten duten arbuioa apurtzeko, beharrezkotzat hartzen dute **irudi berri** baten sorrera bultzatuko duen zabalkunde egoki bat. Aipatu dutenez, zabalkunde hori ez litzateke zentroetan egiten diren jarduerak ezagutaraztera mugatu behar. Aitzitik, AGZek eta, oro har, adinekoek gizartean dituzten **estereotipoak apurtzeko** baliatu beharko litzateke.

Halaber, **izena aldatzea** irudi berria bultzatzeko estrategia egokia izan daitekeela planteatu da. Uste dutenez, lagungarria izan daiteke zentroen eta bertan egiten denaren ikuspegi desberdin bat sortzeko.



Emaitzen laburpena

Zer beharko zenuke horretarako?

- **Kanpoko laguntza**

Adierazitako hobekuntzak udalerrira nola eraman daitezkeen baloratzeko garaian, zailtasunak hauteman dituzte, batez ere parte hartzea sustatzeko. Hori dela eta, eraldaketarako bidea udalerrri bakoitzari modu **pertsonalizatu** batean erraztuko dion kanpoko laguntzaren beharra ikusi dute.

- **Prestakuntza**

Halaber, parte hartzeko prozesuak sustatzeko ezagutzarik ezari aurre egiteko, prestakuntza handiagoa jasotzeko beharra ikusi dute. Prestakuntza horrek, gaitasunak sustatzeaz gain, **sentsibilizazioari** erreparatu behar dio

- **Konpromiso politikoa**

Funtsezkotzat hartzen dute prozesuak politikaren mende ez egotea eta, beraz, interesak alderdi politikoen arabera ez aldatzea. AGZetan beharrezkoa den eraldaketarekiko konpromisoari lotutako **egonkortasun alderdi** modura planteatzen dute.

- **Baliabideak**

Aurrekoari lotuta, indar handia du baliabideak sustatzeko eta gehiago eskatzeko ideia. Aurrekontua, **azpiegiturak** sortzera ez ezik, pertsonengana ere bideratu behar da. Hau da, pertsonengan, haien prestakuntzan eta egonkortasunean eta aurrerapena bultzatuko duten **tresna berritzaileetan** inbertitu behar da.

- **Esparru propioa**

AGZk eta haien funtzionamendua arautuko dituen esparru propio bat aipatu da, modu integralean jarduteko esparru komun bat sortze aldera. Adierazi dutenez, entitate propioa finkatu eta ekipamendu komunitario horiek merezi duten sakontasuna eta egitura eskaini ahal izateko beharrezkoa da parte hartzeko bideari ez ezik bide juridikoari ere ekitea.

- **Topaketak**

Azkenik, adierazi dute komeni dela udalerrri desberdinetako figurak elkartzeko espazioak izatea, **esperientziak partekatzeko** eta, era horretan, **ezagutza transmititzeko**.

Hurrengo urratsak

Azkenik, Helduak Zabaltzen ekimenean 2024. urtean Euskadiko sare tekniko osoan laguntzeko ezarri beharreko lan ildoak zehaztu dituzte parte hartzaileek.

HURRENGO URRATSAK PROXIMOS PASOS



BESTE ESPERIENTZIA BATZUK EZAGUTZEKO GOSEA
HAMBRE DE CONOCER OTRAS EXPERIENCIAS

HORREJAN LAN EGITEN DUTEN PERTSONAK EZAGUTzea
PONER CARA A LAS QUE TRABAJAN

COMPARTIR EXPERIENCIAS
ESPERIENTZIAK PARTEKATzea

CREAR BASES JORTzea
TECNICAS

UDALERRIEN ARTEKO TOPAKETAK
ENCUENTROS INTERMUNICIPALES

PERTSONA ASKO
MUCHAS PERSONAS

EZAGUTZA PARTEKATzea
PONER EN COMUN EL CONOCIMIENTO

BESTE PREMIA BATZUK OTRAS NECESIDADES

BESTE ERALDAKETA BATZUK BULTZATZEKO
PARA IMPULSAR OTRAS TRANSFORMACIONES

PROZESUA PROZESO

PROZESUA NORIK EGIN DUEN JAKITEA

SABER QUIENES HAN HECHO EL PROCESO

BESTE LAN-TRESNAK
OTRAS HERRAMIENTAS

FORMAKUNTZAK
FORMACIONES

HACER DE OTRA MANERA PARA CONSEGUIR OTROS RESULTADOS
BESTE MODU BATERA EGIN
BESTE EMAITZA BATZUK LORTZEKO

FORMAKUNTZAK
FORMACIONES

ENGLOBAN MUCHAS ACCIONES EKIINTZA ASKO BILTZEN DITUZTE

Cómo HACER EL CAMBIO? NOLA EGIN ALDAKETA?

HERRAMIENTAS TREJNA INFORMATIKA BERRITZAILERAK
HERRAMIENTAS INFORMATICAS INNOVADORAS

APGZ WEB ORRIA
WEB de CSPM

PARA COMPARTIR PARTEKATZEKO

EZAGUTZEKO PARA CONOCER

Hurrengo urratsak

Prestakuntzk

Taldeko gehienek adierazi dute prestakuntza osatuagoa izango dela beste tresna batzuekin (hala nola gidekin edo informazio materialekin) osatu daitezkeen prestakuntza birtual edo presentzialen bidez.

Prestakuntzarako interesa izan dezaketen honako gai hauek planteatzen dira: «Nola mobilizatu pertsonak?» eta «Nola hasi aldaketa erakundetik?»

Udalarteko topaketak

Udalarteko topaketa teknikoei maiztasun edo iraupen handiagoarekin jarraitutasuna ematea eskatu da. Halaber, espazio horiek arazo komunak identifikatzeko, esperientziak partekatze eta soluzioak elkarlanean eraikitze duten garrantzia azpimarratu da.

Era berean, topaketa horietan eraldaketa bultzatzen jarraitzeak eta eraldaketa egiteko prozesuak eta tresnak bereziki lantzeak duen garrantzia azpimarratu da. Aldaketaren beharra nabaria da, baina askoz zalantza gehiago daude aldaketa gauzatzeko moduaren inguruan. Udalentzako esparru komun batzuk eraikitze beharra adierazi da.

Webgunea

Euskadiko Adinekoen Gizarte Zentroetarako tresna bat sortzea, udal langileei Euskadiko esperientziak presentzialtasunaren beharrik gabe partekatze eta ezagutzeko aukera emango diena.



Ondorioak

Jarraian, jardunaldiaren ondorioak azaltzen dira, laburpen gisa. Hurrengo lerroek labur jasotzen dituzte ideia nagusiak, baina ez dituzte adierazten adierazi ziren ahots guztiak, ezta gai horietako batzuei buruz oraindik irekita dauden eztabaidak ere.

Beharrezkoa da zentroko eredia eraldatzeko prozesuak parte-hartze prozesu plural eta errealen bidez egitea, komunitate osoaren parte-hartzearekin, horiek eraikitze adinekoen interes eta bizimodu desberdinei eta komunitatearen behar eta estrategiei erantzunez. Parte hartzen duten adinekoek, parte hartzen ez dutenek eta beste profil batzuek parte hartuz, hala nola figura teknikoek eta politikoez eta beste eragile komunitario batzuek.

Eredu tradizionalaren eguneratzea eraldaketarekin nahasteko arriskua dago, hainbat ekintza egiten direnean, hala nola batzordeak berritzea, bazkideen erregistroa digitalizatzea, etab. Aldaketa txikiak eragiten dituzte (jarduera mota berriak edo pertsona gazteagoak erakartzea), baina eguneroko bizitza eta egitura berarekin jarraitzen dute zentroetan, ereduaren egungo erronketan eraginik izan gabe.

Parte-hartze prozesuen bidezko aldaketa sakonek ahots gehiagoren arteko elkarrizketa eskatzen dute, ikuspegiak eta iritziak zabalduz. Aniztasun horrek prozesua eta haren emaitzak aberasten ditu, baina, aldi berean, eztabaida gehiago sortzen ditu. Era berean, aldaketa orok nolabaiteko erresistentzia dakar espazio tradizionalan eroso sentitzen zirenentzat, eta ohikoa da **deserosotasun eta gatatzka sentsazioak sortzea begirada eta proposamenen artean**. Horregatik, garrantzitsua da **egoera horiek saihestezinak eta positiboak** direla ulertzea; izan ere, **puntu aberatsagoetara eramango gaitu**, eta beharrezkoa izango da lankidetzarako eta gatazkaren kudeaketarako jarrera irekia izatea.

Ondorioak

Udalerrri bakoitzak bere erronka eta formulei egin behar die aurre gainerako udalerriez bestelako zentroen egoerari aurre egiteko, eredu bakoitzak udalerriko hainbat aldagaien eragina duelako, bai eta kudeaketa juridiko-administratiboko formulena, baliabide publikoen bilakaera historikoarena eta udalaren eta elkartearen arteko harremanen historiena ere. Hala ere, herrien arteko puntu komun ugari identifikatzen dira, eta horrek zentroen paradigma globalaren aldaketaz hitz egiten du, eta agerian uzten du lan-esparru globalen beharra, erantzun bateratuak eman ahal izateko.

Profesional gehienek partekatzen duten erronka nagusietako bat "**batzorde edo erabiltzailearen**" **partaidetza-binomioa haustea da, parte hartzeko modu berriak sortuz, parte-hartze eredu horizontalagoa ahalbidetzeko**. Horretarako, figura berrien sorrera (adibidez: lan-batzordeak, talde sustatzaileak...) eta partaidetza-egiturak (adibidez: Bizan ereduak) identifikatzen dira.

Eraldaketa-prozesuan, garrantzitsua da udalaren eta zentroaren baterako kudeaketan inplikaturako adinekoen arteko **harreman informal eta naturala ez galtzea**. Harremanaren ezaugarri horiek gakoetako bat dira eragileen artean hurbiltasun handiagoa lortzeko, Zentroko bizitzaren benetako ezagutza eta elkarlaneko lana erraztuz.

Egungo ereduetan, Udalaren rol nagusia da nagusi, laguntza ekonomikoen eta ekipamenduen hornitzaile gisa, azpiegitura-arazoak konpontzeko laguntza eta izapideen kudeatzaile gisa, kasu gehienetan. Eraldaketaren funtsezko alderdia **udalaren eta adinekoen arteko elkarlaneko eraikuntza eta inplementazioa** da. Horrek berekin ekarriko luke udalak rol berrietara igarotzea estrategia partekatuak lantzeko, ekimen bateratuak abian jartzeko eta/edo beste baliabide publiko batzuekiko (lehen mailako arreta, eguneko zentroa, eta abar) lotura ezartzeko.

Ondorioak

Gaur egun, **kafetegi-zerbitzua** kudeatzeko eredu nagusia gatazkatsua edo mantentzen zaila da hainbat herritan, eta kasu horietarako **kudeaketa-formula berrietan pentsatzen hasi behar da**. Horretarako, garrantzitsua da beste prozedura batzuk ezagutzea, hala nola landa-inguruneetako ohiko elkarteak kafetegia autokudeatzeko dituen moduak.

Zentroekin lan egiten duten udal profesional gehienek **lan-ibilbide luzea dute, eta, horri esker, arlo horretan aditua den ezagutza eskuratu dute**, eta gaitasun ugari garatu dituzte hain rol anitza eta konplexua izateko. Hala ere, parte-hartzaileek beharrezkotzat jotzen dute **funtzio horiek profesionalizatzea**, honako hauen bidez: parte hartzeko prozesuetan trebatzea, asoziazionismoa, adimen emozionaleko trebetasunak, komunikazioa eta gatazken konponketa, zahartzeari buruzko ezagutzaren oinarri teorikoak, esku-hartze komunitarioa eta beste gai sozial batzuk, hala nola gizarte-bazterketa edo berdintasuna.

Ez da gutxietsi behar adinkeriak zentroen pertzepzio sozialean duen eragina. Horretarako, eraldaketarekin batera, funtsezkoa da **komunikazio-kanpainen lan egitea, zentroen gizarte-irudi berria sustatzeko** eta gune horietatik adinekoek komunitateari egiten dizkioten ekarpenak erakusten dituzten estereotipoak desegiteko.

Helduak Zabaltzenen udal arteko topaketa teknikoen bidez hasitako **teknikari-sareak** potentzial handia du esparru globalak sortzeko eta lankidetzan aritzeko, eta **garrantzitsua da proiektuaren beraren ekintzetatik haratago jarraitzea eta zabaltzea**.

Adineko pertsonen Gizarte Zentroak
eraldatzeko bidean



**Helduak
Zabaltzen**

Hacia la transformación de los Centros
Sociales de Personas Mayores